



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 12 (e) koa, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, metatze aldia hartzeko adinagatiko irakastorduak murrizteari buruzko deialdi iraunkor irekia ezartzen duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 93. artikuluan eta 2025eko maiatzaren 9an sinatutako aurreakordioan ezarritakoaren arabera, atzera egiten da eta, beraz, indarrik gabe uzten da Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko martxoaren 10eko Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita 2025-2026 ikasturtean adinagatik irakastorduak murrizteari buruzko deialdia, aipatutako aurreakordioaren 55.3 artikulua aplikatzeko.

Horrenbestez, eta kontuan hartuta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- Indarrik gabe uztea Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko martxoaren 10eko Ebazpena, 2025-2026 ikasturtean adinagatik irakastorduak murrizteari buruzko deialdia ezartzen duena, 2025eko maiatzaren 9an sinatutako aurreakordioaren 55.3 artikulua aplikatzeko.

BIGARRENA.- Helburua

Ebazpen honen xedea da adinagatiko lanaldi-murrizketak eskatzeko prozedura ezartzea, bertan metatutako irakastorduen herena murrizteko modalitaterako ezarritako baldintzetan.

HIRUGARRENA.- Metatutako irakastorduen herena murriztea.

1.- Aplikazio-eremua.

Deialdi hau honako langile hauei aplikatuko zaie:

- 59 urte (60 urte bete gabe) dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako karrerako edo bitarteko irakasle funtzionarioak.
- 60 eta 64 urte bitartean dituzten karrerako edo bitarteko funtzionario irakasleak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren barruan daudenak.

RESOLUCIÓN de 12 de junio de 2025, del director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se establece la convocatoria, permanente abierta, relativa a las reducciones de horas lectivas por razón de edad, modalidad de disfrute acumulado.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 93 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en el Preacuerdo firmado el 9 de mayo de 2025 se procede a desistir y por tanto a dejar sin efecto la resolución de 10 de marzo de 2025, del director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se establece la convocatoria relativa a las reducciones de horas lectivas por razón de edad, en el curso 2025-2026, para proceder a la aplicación del artículo 55.3, del preacuerdo citado.

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 381/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación

RESUELVO:

PRIMERO. – Dejar sin efecto la resolución de 10 de marzo de 2025, del director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se establece la convocatoria relativa a las reducciones de horas lectivas por razón de edad, en el curso 2025-2026 para proceder a la aplicación del artículo 55.3, del preacuerdo firmado el 9 de mayo de 2025

SEGUNDO. - Objeto

La presente resolución tiene por objeto establecer el procedimiento de solicitud de reducciones de jornada por razón de edad en los términos establecidos en la misma para la modalidad de reducción de un tercio de horas lectivas acumuladas.

TERCERO. – Reducción de un tercio de horas lectivas acumuladas.

1.- Ámbito de aplicación.

La presente convocatoria será de aplicación al siguiente personal:

- Personal funcionario de carrera o interino docente de Educación Infantil y Primaria que tenga 59 años (no cumplidos 60 años).
- Personal funcionario de carrera o interino docente que tenga entre 60 años y 64 años cumplidos incluidos en el Régimen General de la Seguridad Social.

- c) 65 urte beteta dituzten karrerako edo bitarteko irakasle funtzionarioak, Gizarte Segurantzako Arrambide Orokorren barruan daudenak. (Ikus seigarren ebazpena. Araubide iragankorra)

2.- Betekizunak

Aurreko atalean aipatutako langileek 15 urtez jarraian edo 20 urtez etenda jardun behar izan dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, erretiroa hartzeko ukan.

Emandako zerbitzuak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira senidea zaintzeko eta aldi baterako eteteko aldiak, baldin eta justifikatzen badira.

3. – Metatutako ordu-murrizketaren xedea eta aplikazio-irizpideak.

3.1.- 59 urterekin irakastorduak murriztea

Metatutako murrizketa-orduak erretiro-dataren aurreko aldian edo 60 eta 64 urte bitarteko murrizketari dagozkion metatutako orduak hartu aurretik hartu ahal izango dira.

Gehienez hiru hilabeteko aldia metatu ahal izango da, eta ikastetxean irakastordurik ez emateko aldia sortuko da. Epe hori ezagutzak bateratzeko epearen barruan zenbatu ahal izango da.

3.2.- 60 eta 64 urte bitartekoen irakastorduak murriztea:

- a) Urte bakoitzeko metatutako aldirako sortu ahal izango den gehieneko aldia 4 hilabetekoa izango da.

Hiruhilekoka egingo da kalkulua, eta metatutako aldia hilabete batekoa izango da hiruhileko bakoitzeko; ez dira kontuan hartuko hiruhilekoko zatikiak.

Era berean, lanaldi murriztua duten langileek egiten ari diren lanaldiarekiko proportzionala den aldia metatuko dute.

- b) Gehienez ere urtebete eta sei hilabete metatu ahal izango dira 5 urteko epean.
- c) Metatutako aldiaren lehen hiru hilabeteak ezagutza transmititzearekin lotutako eginkizunak betetzeko izango dira, baina ez da beharrezkoa izango ikastetxean etengabe egotea. Metatutako gainerako hilabeteak uztaila bezalakoak izango dira, eta ez dira ikastetxean egongo.

- c) Personal funcionario de carrera o interino docente que tenga 65 años cumplidos incluidos en el Régimen General de la Seguridad Social (Véase Resuelvo sexto. Régimen Transitorio)

2.- Requisitos

El personal señalado en el apartado anterior deberá haber prestado servicios durante 15 años continuados o 20 años interrumpidos en centros públicos no universitarios dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco en el momento de jubilarse.

En el cálculo de los servicios prestados se tendrán en cuenta los periodos de cuidado de familiar y suspensión transitoria, siempre que se justifiquen.

3.- Objeto y criterios de aplicación de la reducción horaria acumulada.

3.1.- Reducción de horas lectivas a los 59 años

Las horas de reducción acumuladas se podrán disfrutar en el periodo previo a la fecha de jubilación o con anterioridad al disfrute de las horas acumuladas correspondientes a la reducción de entre 60 y 64 años.

Se podrá acumular un periodo máximo de tres meses, creando un periodo de no impartición de horas lectivas en el centro. Este plazo podrá computarse dentro del plazo de realización de la puesta en común de los conocimientos

3.2.- Reducciones de horas lectivas entre los 60 y los 64 años:

- a) El periodo máximo que se podrá generar para el periodo acumulado por cada año será de 4 meses.

El cálculo se hará por trimestres siendo el período acumulado de 1 mes por cada trimestre, no se tendrán en cuenta fracciones de trimestre.

Así mismo, el personal que esté a jornada reducida acumulará el periodo proporcional a la jornada que esté realizando

- b) Se podrá acumular un año y seis meses como máximo en el plazo de 5 años.
- c) Los tres primeros meses del periodo acumulado serán para el desempeño de funciones relacionadas con la transmisión del conocimiento, pero sin necesidad de permanencia continuada en el centro. El resto de los meses acumulados tendrá carácter de julio sin presencia en el centro.

d) Metatutako aldia erretiroa hartu aurreko epean baliatu beharko da, erretiroa borondatezkoa edo nahitaezkoa izan.

e) Metatutako aldia baliatzen hasteko, irakasle funtzionarioek aldi berean aurkeztu beharko dituzte metatutako gozamina hartzeko eskabidea eta erretiro-data. Metatutako murrizketa hori onartu ondoren, ez da ikasturte bakoitzeko murrizketarik aplikatuko.

Horretarako, erretiro hori hartzeko, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrak zehazten dituen kotizazio-aldiak bete beharko ditu.

f) Murrizketa metatua hartu aurreko urtean, partzialki ordaindutako baimena hartu ahal izango da. Hala ere, aldi horrek ez du aldi metaturik sortuko, ez baita benetako zerbitzurik ematen.

g) Ordu-murrizketaren metaketa baliatzen den aldian, funtzionarioek eskubidea izango dute beren hartzeko guztiak jasotzeko, osagarri akademikoak eta zuzendaritza-osagarriak izan ezik.

h) Metatutako aldia hartzea bateraezina izango da ordaindutako beste jarduera bat egitearekin.

i) Ordu-murrizketa metatua duten langileen administrazio-egoera jarduneko zerbitzuko izango da ondorio guztietarako. Horregatik, murrizketa hori baliatzeko baldintzei eragiten dieten inguruabar guztiak jakinarazi beharko dira.

3.3.- Irakastorduak murriztea 65 urtetik gorako langileentzat (ikus laugarren atala. Erregimen Iragankorra):

Abuztuaren 31n Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuta dauden 65 urte beteta dituzten eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 15 urte jarraian edo 20 urte etenda eman dituzten irakasle funtzionarioek murrizketa-orduak metatzea aukeratu ahal izango dute. Gehienez 4 hilabete metatuta.

Aukera metatua aukeratzeko duten langileak, 65 urtetik aurrera, salbuetsita geratuko dira ezagutza transmititzearekin lotutako eginkizunak betetzetik lehen hiru hilabeteetan.

3.4 Irakastordurik gabeko langileak

Ikastetxe bati atxikitako irakasleek, irakastordurik ez badute, metatutako lanaldi-murrizketa baliatu ahal izango dute, baldin eta Hezkuntza Sailaren mendeko

d) El periodo acumulado deberá disfrutarse en el plazo anterior a la jubilación, sea esta voluntaria o forzosa.

e) Para el inicio del disfrute del período acumulado, el personal funcionario docente deberá presentar simultáneamente la solicitud para su disfrute y la fecha de jubilación. Una vez aceptada dicha reducción acumulada, no se aplicarán reducciones por curso escolar.

A tal efecto, para acceder a dicha jubilación deberá reunir los períodos de cotización que determine el Régimen General de la Seguridad Social.

f) El año previo al disfrute de la reducción acumulada se podrá disfrutar del permiso parcialmente retribuido. Sin embargo, dicho periodo no generará ningún periodo acumulado ya que no se prestan servicios efectivos.

g) Durante el período de disfrute de la acumulación de la reducción horaria, el personal funcionario tendrá derecho a la percepción íntegra de sus haberes, con excepción de los complementos académicos y directivos.

h) El disfrute del período acumulado será incompatible con el desempeño de otra actividad retribuida.

i) La situación administrativa del personal con reducción horaria acumulada será de servicio activo a todos los efectos. Por ello, se deberán comunicar todas las circunstancias que afecten a las condiciones de disfrute de esta reducción.

3.3.- Reducción de horas lectivas para el personal a partir de 65 años (Véase Resuelto cuarto. Régimen Transitorio):

El personal funcionario docente que tenga 65 años cumplidos, a fecha 31 de agosto, incluidos en el Régimen General de la Seguridad Social que hayan prestado servicios durante 15 años continuados o 20 años interrumpidos en centros públicos no universitarios dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, podrán optar por la acumulación de las horas de reducción. Acumulando un máximo de 4 meses.

El personal que opte por la opción acumulada, a partir de los 65 años, quedarán exentos de realizar las funciones relacionadas con la transmisión del conocimiento durante los tres primeros meses.

3.4 Personal sin carga lectiva

El personal docente adscrito a un centro escolar, que no tiene carga lectiva, podrá disfrutar de la reducción de jornada acumulada siempre que tenga 15 años de manera

unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 15 urte jarraian edo 20 urte jarraian ematen badituzte.

3.5 Irakaskuntzaren Ikerketa eta Laguntzarako Zerbitzuetako.

Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuetan lan egiten duten langileek ordu-murrizketak baliatu ahal izango dituzte metatutako murrizketaren modalitatean, baldin eta zuzeneko irakaskuntzan gutxienez 15 urte jarraian aritu badira edo 20 urte etenik gabe.

Ikerketa eta Irakaskuntzari Laguntzeko Zerbitzuetan lan egiten duten langileek behin betiko destinora itzuli beharko dute, eta zentrora itzuli beharko dute metatutako aldia baliatzen den ikasturtearen hasieran.

Ordainsariak itzultzen den irakasleen kidegoari dagozkionak izango dira, jatorrizko lanposturako ezarritako osagarriei eutsi gabe.

3.6 Liberazio sindikala duten langileak

Liberazio sindikala duten langileek ordu-murrizketak baliatu ahal izango dituzte metatutako murrizketaren modalitatean, baldin eta zuzeneko irakaskuntzan gutxienez 15 urte jarraian aritu badira edo 20 urte etenik gabe.

Liberazio sindikala duten langileek behin betiko destinora itzuli beharko dute, eta zentrora itzuli beharko dute metatutako aldia baliatzen den ikasturtearen hasieran.

3.7 Araubide berezia Hezkuntzako Ikuskaritzan lan egiten duten langileentzat.

- a) Hezkuntza Ikuskaritzan lan egiten duten langileek ordu-murrizketak baliatu ahal izango dituzte metatutako murrizketaren modalitatean, baldin eta gutxienez 15 urtez jarraian edo 20 urtez etenik gabe lan egin badute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean erretiroa hartzean.
- b) Urte bakoitzeko metatutako aldirako sortu ahal izango den gehieneko aldia 2 hilabetekoa izango da.

Hiruhilekoka egingo da kalkulua. Metatutako aldia hiruhileko bakoitzeko 15 egun naturalekoa izango da, eta ez dira hiruhilekoko zatikiak kontuan hartuko.

continuada o de 20 años de modo interrumpido prestados en centros públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Departamento de Educación.

3.5 Personal de los Servicios de Investigación y Apoyo a la Docencia

El personal que presta servicio en los Servicios de Investigación y Apoyo a la docencia, podrán acogerse a las reducciones horarias en la modalidad de reducción acumulada siempre y cuando haya ejercicio la docencia directa un mínimo de 15 años de manera continuada o de 20 años de modo interrumpido.

El personal que presta servicio en los Servicios de Investigación y Apoyo a la docencia deberá volver a su destino definitivo y la incorporación al centro deberá ser efectiva en el inicio del curso escolar en el que se realice el disfrute del período acumulado.

Las retribuciones serán las correspondientes a las del Cuerpo docente al que pertenece, sin el mantenimiento de los complementos establecidos para el puesto de procedencia.

3.6 Personal con liberación sindical

El personal con liberación sindical podrá acogerse a las reducciones horarias en la modalidad de reducción acumulada siempre y cuando haya ejercicio la docencia directa un mínimo de 15 años de manera continuada o de 20 años de modo interrumpido.

El personal con liberación sindical deberá volver a su destino definitivo y la incorporación al centro deberá ser efectiva en el inicio del curso escolar en el que se realice el disfrute del período acumulado.

3.7 Régimen especial para el personal que presta servicios en la Inspección educativa.

- a) El personal que presta servicio en la Inspección educativa, podrá acogerse a las reducciones horarias en la modalidad de reducción acumulada siempre y cuando haya prestado servicios un mínimo de 15 años de manera continuada o de 20 años de modo interrumpido en el Departamento de Educación del Gobierno Vasco en el momento de jubilarse.
- b) El periodo máximo que se podrá generar para el periodo acumulado por cada año será de 2 meses.

El cálculo se hará por trimestres siendo el período acumulado de 15 días naturales por cada trimestre, no se tendrán en cuenta fracciones de trimestre.

- c) Era berean, lanaldi murriztuan dauden langileek egiten ari diren lanaldiarekiko proportzionala den aldia metatuko dute.
- d) Gehienez ere 10 hilabete metatu ahal izango dira 5 urteko epean.
- e) Metatutako aldiaren lehen hilabetea ezagutza transmititzearekin zerikusia duten eginkizunak betetzeko izango da, baina lanpostuan etengabe jarraitu beharrik gabe. Pilatutako gainerako hilabeteetan ez da beharrezkoa izango lanpostuan egotea.

3.8 Gogoeta orokorrak

Hiruhilekoka egingo da kalkulua, eta metatutako aldia hilabete batekoa izango da hiruhileko bakoitzeko; ez dira kontuan hartuko zati txikiagoak.

Pilatutako modalitatea aukeratu ondoren, ezin izango da urteko modalitatera aldatu.

Metatutako aldia amaitutakoan langileak ez badu erretiroa hartzen justifikatutako arrazoiengatik, % 100ean irakatsiko du berriro, eta adinaren arabera eskola-orduen murrizketa eskatzeko aukera galduko du.

LAUGARRENA.- Araubide iragankorra:

1.- Akordioa indarrean sartzen den ikasturtean metatutako baimen bat baliatzeko baldintzak betetzen dituztenek, ikasturte batean heren bateko murrizketa izan badute, etapa bakoitzerako ezarritako eskola-ordutegiaren heren bateko murrizketarekin jarraitu ahal izango dute, edo metatutako murrizketa aukeratu ahal izango dute. Hala ere, modalitate metatura aldatzea aukeratuz gero, 2025eko irailaren 1etik aurrera hasiko dira aldi hori sortzen, 24-25 ikasturtean emandako murrizketa amaitutakoan.

2.- Deialdi hau argitaratu aurretik eskatutako adina bete duten eta eskaera 2025eko ekainaren 30a baino lehen egiten duten irakasle funtzionarioen kasuan, metaketaren kalkulua 2025eko maiatzaren 12tik aurrera hasiko da.

3.- Salbuespen gisa, 2025/2026 ikasturtean eta hurrengo 5 ikasturtean, 65 urtetik gorako langileek eskola-orduen murrizketa metatzea aukeratu ahal izango dute, urte bakoitzeko gehienez 4 hilabete metatuz.

BOSGARRENA.- Eskabideak.

Eskaera HEZIGUNEA atariaren bidez (<https://hezigunea.euskadi.eus>) egin beharko da "Ordu lektiboen murriztea: adinaren arrazoiagatik, gozamen metatua" bannerretik, eta beharrezkoa izango da eskatzailea aldeztu aurretik identifikatzea (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, baldin eta halakorik badago).

- c) Así mismo, el personal que esté a jornada reducida acumulará el periodo proporcional a la jornada que esté realizando
- d) Se podrán acumular 10 meses como máximo en el plazo de 5 años.
- e) El primer mes del periodo acumulado será para el desempeño de funciones relacionadas con la transmisión del conocimiento, pero sin necesidad de permanencia continuada en el puesto de trabajo. El resto de los meses acumulados no será necesaria la presencia en el puesto de trabajo.

3.8 Consideraciones generales

El cálculo se hará por trimestres siendo el período acumulado de 1 mes por cada trimestre, no se tendrán en cuenta fracciones inferiores.

Una vez seleccionada la modalidad acumulada no se podrá cambiar a la modalidad anual.

Si finalizado el disfrute del período acumulado la persona trabajadora no se jubilara por motivos justificados, volverá a impartir docencia al 100% perdiendo la opción de solicitar una nueva reducción de horas lectivas por edad.

CUARTO. - Régimen transitorio:

1.- Quienes cumplan los requisitos para disfrutar de un permiso acumulado en el curso en el que entra en vigor el acuerdo, pero ya hayan tenido una reducción de un tercio en algún curso académico, podrán continuar con una reducción de un tercio del horario lectivo establecido para cada etapa o podrán optar por la reducción acumulada. Sin embargo, en caso de optar por el cambio a la modalidad acumulada, empezarán a generar dicho periodo a partir del 1 de septiembre de 2025, una vez finalizado el disfrute de la reducción concedida el curso escolar 24-25.

2.- Para el personal funcionario docente que haya cumplido la edad requerida con anterioridad a la publicación de esta convocatoria y que realice la solicitud antes del 30 de junio de 2025, el cálculo de la acumulación comenzará a partir del 12 de mayo de 2025.

3.- De forma excepcional, durante el curso 2025/2026 y 5 siguientes, el personal de más de 65 años podrá optar por la acumulación de la reducción de horas lectivas, acumulando un máximo de 4 meses por cada año.

QUINTO. - Solicitudes.

La solicitud deberá realizarse a través del portal HEZIGUNEA (<https://hezigunea.euskadi.eus>) desde el banner: "Reducción de horas lectivas por razón de edad, disfrute acumulado" y será necesaria la identificación previa (DNI/NIE + Contraseña, o usuario de XLNets si ya se dispone) de la persona solicitante.

Eskabidea egiteko, dagokion inprimakia bete beharko da. Inprimaki hori goian aipatutako Interneteko helbidean egongo da eskuragarri.

SEIGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea

Deialdi hau urte osoan zehar egongo da irekita, eskatutako adina betetzeko eskaera errazteko.

Eskabideak aurkezteko epea ikasturte osoan zehar egongo da zabalik 60 urte bete dituzten langileentzat. Metatu beharreko aldiaren zenbaketa eskaera aurkezten den egunetik aurrera hasiko da. Eskaera egiten den unean adina beteta eduki beharko da.

Aurkeztutako eskabideak aldian-aldian ebatziko dira.

Aldi baterako, salbuespenezko epe bat irekiko da modalitate hori aukeratu nahi duten 60 langile baino gehiagorentzat. Adinaren arabera irakastorduen herena murrizten ari diren langileek 2025eko irailaren 1ean hasiko dute metatze-aldia. Adinaren arabera irakastorduen herena murriztu ez duten eta eskaera 2025eko ekainaren 30a baino lehen egiten duten langileak 2025eko maiatzaren 12an hasiko dira aldi hori sortzen.

ZAIZPIGARRENA.- Emateari buruzko ebazpena.

- a) Eskabideak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena argitaratuko da.
- b) Aldi baterako, lehen ebazpen bat argitaratuko da 25-26 ikasturtea hasi aurretik, 2025eko ekainaren 1era arte, barne jasotako eskabideekin.
- c) Eskatutako murrizketen ebazpena Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da, jakinarazpena egiteko (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/>).
- d) Murrizketa hori ematea ukaezina da.

ZORTZIGARRENA.- DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta "Langileen kudeaketa" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Langilariaren Kudeaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

La solicitud se realizará mediante la cumplimentación del correspondiente formulario que se encontrará disponible en la dirección de internet arriba mencionada.

SEXTO. - Plazo presentación solicitudes

Esta convocatoria permanecerá abierta durante todo el año para facilitar la solicitud al cumplimiento de la edad requerida.

El plazo de solicitudes estará abierto a lo largo de todo el curso escolar para el personal que haya cumplido 60 años. El cómputo del periodo a acumular comenzará a generarse desde la fecha de la presentación de la solicitud. Habrá que tener cumplida la edad en el momento de la solicitud.

Se irán resolviendo periódicamente las solicitudes presentadas.

Transitoriamente, se abre un plazo excepcional para el personal mayor de 60 que desee optar por esta modalidad. El personal que ya esté disfrutando de la reducción de 1/3 de horas lectivas por edad comenzará el periodo de acumulación el 1 de septiembre de 2025. El personal que no haya disfrutado de la reducción de 1/3 de horas lectivas por edad, y que realice la solicitud antes del 30 de junio de 2025, empezará a generar dicho periodo el 12 de mayo de 2025.

SEPTIMO. - Resolución de concesión.

- a) Una vez analizadas las solicitudes se procederá a la publicación de la Resolución del director de Gestión de Personal.
- b) De forma transitoria se publicará una primera resolución antes del inicio del curso escolar 25-26 con las solicitudes recibidas hasta el 30 de junio de 2025, incluido.
- c) La resolución de reducciones solicitadas se publicará, a efectos de notificación, en **la página web del Departamento de Educación** (<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>).
- d) La concesión de esta reducción tiene carácter irrenunciable.

OCTAVO. - INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Gestión de personal.

Responsable: Dirección de Gestión de Personal, Departamento de Educación.

Helburua: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Finalidad: Gestión de personal docente y no docente.

Legitimazioa:

- a) Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
- b) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- c) 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- d) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- e) 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Legitimación:

- a) Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.
- b) Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.
- c) Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- d) Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- e) Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores

Hartzaileak:

- a) Estatuko Administrazioako beste organo batzuk.
- b) Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Destinatarios:

- c) Otros órganos de la Administración del Estado.
- d) Otros órganos de la Comunidad Autónoma.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-cap2-eu.shtml

Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml

Araudia:

- a) Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).
- b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Normativa:

- a) Reglamento General de Protección de Datos (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- b) Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

BEDERATZIGARRENA.- Errekurtsoak.

NOVENO. - Recursos.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas*,



aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera

contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Vitoria Gasteizen, 2025eko ekainaren 12an
En Vitoria-Gasteiz, a 12 de junio de 2025

UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONA